

ERDU PRESS

ARRIETA • FRUIZ • GAMIZ-FIKA • MEÑAKA

EUSKARA ZERBITZUA

29. zk.

2007ko zemendia



SUTONDOTIK

PAPERERA

**X.
ipuin
lehiaketa**


X.IPUIN LEHIAKETEAK MARTXAN.

Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika eta Meñakako Udalek 2007ko ipuin lehiaketarako oinarriak kaleratu dabez. Aurreko edizioetan egin dan moduan aurtegoan be 5 kategoria ezarri dira; holan ba, 5 urtetik aurrerako herritar guzti-guztiek ahal izango dabe parte hartu. Gogoratu lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 3a izango dala. Animatu, hartu bitartetxo bat, ezarri eta idatzi buruan buelta-bueltaka dabilzun edota aittite-amamei hainbestetan entzundako ipuin hori. Urtero lez, sari eder-ederrak egongo dira parte hartzaile guztientzat. Sari banaketea Meñakan egingo da, abenduaren 14an, arratsaldeko 19:30etan, Bekoabadene txokoan. Ordurarte guztioi!

“ZELAN LAGUNDU SEME-ALABEI EUSKERAZ BIZI DAITEZAN??”

BERBALDIA ARRIETAko Kultur Etxean azaroaren 30ean, arrastiko 19:00retan. Egun horretan Julio Ibarra kazetari ezaguna eta Iñaki Eizmendi gizarte hezitzailea gurasook eukiten doguzan hainbat galdera eta kezka argitzen ahaleginduko dira; esate baterako:


- “Nire alabak orain arte euskeraz egin izan dau lagunakaz, baina aspalditxoan erdera asko egiten dabela konturatu naz”
- “Eskolan euskera batua erabiltzen dabe, baina nik ez dakit. Kaltegarria da etxeko euskerean egitea?”
- “Nik euskeraz dakit baina nire bikoteak ez, zelan jokatu geinke?”
- ...



FRUIZKO “Lamiñe” Abesbatzak eta Mungiako Jose M. Arregi Abesbatzak Gabon Kantak eskainiko dabez abenduaren 23an Fruizko elizan, meza ostean. Animatu eta etorri entzutera!!!

ARGAZKI BILKETA MEÑAKAN.

Orain dala urte batzuk argazki zaharrak biltzen hasi ginan. Aurton hasita beste bilketa bat egingo da lehengoei gehitzeko. Eskatzen doguna zera da: argazki zaharrik badekozue etxean, ekarri udaletxera eta momentuan itzuliko jatzuez barriro. Aurrerago liburua argitaratuko da eta Meñakaren barri hobeto jakiteko aukerea izango dogu.

**GAZTEENTZAKO IKASTAROAK URTARRILETIK AURRERA FRUIZEN.**

Gure herrietan daukoguzan gazteak herrian egotea, herriko kontuetan parte hartzea, herriari bizia emotea... gura badogu, argi dago gazteei begirako ekintzetan indar handiagoa jarri beharra dagoala. Holan ba, eta ikusita gazteentzako gauza gitxitxu antolatzen dala, Fruizko Udala lanean dabil urtarriletik aurrera hainbat ikastaro martxan jartzeko; ikastaro horreen artean dagoz, besteak beste, abalorioak egiten ikastekoa, Capoeira, antzerki teknikak, graffitiak... Izena emon edota iradokizunak egiteko epea zabalik dago daborduko (94 615 32 10).

FOROA ARRIETAN. Urriaren 30ean Agenda 21eko Foroa egin zan Arrietan Libao auzoan dagoan Uriaena etxeari ze erabilera emon aztertu zan bertaratu ziran herritarren artean.


GAMIZ-FIKAKO UDALAK posta elektroniko barria dauko. Hartu papela eta boligrafoa eta apuntatu: gamiz.fika@bizkaia.org



Herri euskaldunak izan arren, euskerearen erabilera sustatzeko eta indartzeko ekimenak gurean oraindino be beharrezko diralakoan, Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udalek egutegitxoak atera dabez “GUREAN ALKARREGAZ EUSKERAZ” esaldia-gaz. URTE BARRIAK ZABALDU DAGIALA GURE EUSKERA EDERRA HERRIKO BAZTER GUZTIETARA!!

ARRIETA

Arrietako San Martinak “maskotea” daukie. MARTINTXU dauko izena eta bera arduratuko da aurrerantzean San Martin jaietan alaitasuna eta giro ona nagusitu daiten.



Badira 2-3 urte Arrietako Udalak Irisgarritasun Plana onartu ebana. Plan horretan herritarren mugikortasuna eta irisgarritasuna errazteko neurriak ezarri ziran, eta herria eta herritarren beharrian eta lehentasunak kontutan hartuta urterik urte hainbat neurri aurrera erroteko konpromisoa hartu zan. Aurtengo honetan, besteak beste, elbarriek ibilgailua aparkatzeko gune berezitu bi ezarri dira herrian, bata plazan eta bestea Jainko auzoan.



Teknologia barriek gaurko gizartean gero eta leku gehiago daukie, gero eta zerbitzu gehiago eskaintzen dabe eta erraztasun gehiago emoten deuskue hainbat eta hainbat kontutarako. Gure herritxoetan be gero eta leku gehiago egiten hasita gagoz teknologia barriei.

Arrietako Udalak esaterako, teknologia barriek dakarriezan abantailak aprobetxatu eta www.arrieta-udala.net orriaren bidez udalerrian ibiltzeko aukerea emoten deusku. Holan ba, gura dauanak udalerriko mapa eta ortorgazkia ikusi ahal izango dau, eta ez hori bakarrik, ezpada ze mapan/herrian batetik bestera ibili be ahal izango da, distantziak eta azalerak neurtu, gura diran zatiak inprimatu, auzoetatik bilaketak eta kontsultak egin izenetik, zenbakitik, ...

Teknologia barriei esker, jezarrita gagozala ibili gaitেকেz herrian zehar!!! Egizue aproba!!!

GAMIZ-FIKA



Lorenzo Urrea gamiz-fikarra Moko txakurragaz. (Argazkia nondik: www.deia.com)

LORENZO URRA gamiz-fikarrari beti gustau izan jakoz piztiak, baina baten batzuen aldeko aukerea egin behar eta... kaza-txakurrak aukeratu ebazan orain dala 30 urte inguru. Harrezkero behar orduetatik kanpo daukozan tarte ia danak kaza-txakurrei eskaintzen deusez. Fikan daukon txakur haztegia bere bigarren etxea bihurtu da, han egiten dauz kaza-txakurrak hazi eta hezi.

1981-1982an txakurraz ehiza lehiaketetara presentetan hasi zan eta harrezkero munduko bazter guztietatik ibili eta hainbat eta hainbat sari jaso dauz, hona hemen lortutako sarietariko batzuk:

1991: Munduko txapelduna (Italia).

1993: Munduko txapelduna (Frantzia).

1994: Europako txapeldunordea (Holanda).

1999: Europako txapeldunordea (Italia).

2000: Europako setter txapelketa.

2001: Europako setter txapelketan hirugarrena (Kroazia).

2004: Munduko txapeldunordea (Eslobakia).

2006: Mediterranear kopako txapeldunordea (Italia).

2007 Europako setter txapelketan Sari berezia

2007: Munduko txapelduna (Belgika).

Aitatu beharrekoa da baita be 20 aldiz aukeratu izan dabezala bere txakurrak munduko ehiza txapelketara joateko.

Aurtengo urrian munduko ehiza txapelketa jokatu da Belgikan. 18 herrialdetako kaza-txakurrek lehiatu dabe eta zer eta... Lorenzoren Moko txakurra izan da garaile, txapeldun. Holan ba, ezer baino lehen ZORIONAK hemendik Lorenzo eta Mokori.

Lorenzo, noiztik zabiz kaza-tzakurrak hazten eta hezten? Ze arraza daukozuz?

- Orain dala 30 urte hasi nintzan. Eta arraza honeekaz egiten dot behar: “*setter ingles*”, “*pointer*”, “*setter gordon*” eta “*espanier breton*”. Nik hazten dodazen txakurrak Playabarri daukie afijioa.

Noz egoten da kaza-tzakurra sasoirik onenean?

- 6-7 urte daukiezanean egoten dira normalean lehiaketetarako puntuan, sasoirik onenean.

Ze ezaugarri eukiten da kontutan?

- Batez be, oreka, erresistentzia, usaimenerako zentzua... eta lehiaketarako danean, ba horreetatik aparte arrazaren “kanon”etik ahalik eta hurbilen egotea be kontutan hartzen da (estiloa...)

Moko txakurra izan da aurtun munduko txapeldun. Ze ikusi dabe epaileek berarengan?

- Batez be oreka, eta oso argia dala.

Epaile beharretan be ibiltzen zara, ezta? Noizko Munduko Txapelketa Euskal Herrian?

- Bai, nazioarteko epaile beharretan be ibiltzen naz, orain dala aste batzuk Pirinioetan egon naz esate baterako. Eta hemen Euskal Herrian ba... holango txapelketa bat egiteko egia esan ez dago leku apropos askorik; izan be, lekuak baldintza batzuk bete behar dauz, lur arlo handiak behar dira, bardin antzekoak, arto sailak, pas-tuak..., ehiza naturalak egon behar dau bertan (eperrak, oilagorak...). Egin kontu, Bizkaia eta Euskadi txapelketak eurak be gehienetan Euskal Herritik kanpo egin izan dira.

- Eta txakurrak badakituzue euskerarik?

- Ja, ja, ja ...Bai, bai.

MEÑAKA

JUAN BILBAO MEÑAKAN

Irailaren 1ean Meñakako Herriko Tabernan aparteko emanaldia izan gendun. Juan Bilbao eta beste hainbat euskal artista berari laguntzen izan ziran ia ehun pertsonaren aurrean. Atxakia CD barriaren aurkezpena izan zan, nahiz eta Martirako izango dan lan barria salgai.

Izaskun Legarreta soinuarekin, Oier Ateka kitarra eta albokarekin. Pablo eta Iñaki txalaparta, adarra eta perkuzioarekin ederto baten moldatu ziran. Euskal abestiak abestu ebezan, normalean afalostean abesten direnak eta baita serioagoak bere...

Ordubeteko saioa izango zala pentsatu arren, ia ordu bi egon ziran, jendearen “beste bat”, eta Maria Angeles “Alegriko”ren ekarpenari esker. Giro aparta izan zan eta ez zan hor amaitu, gero afaria izan zan Herrikoan, lekurik be ez zan egon azken orduan etozentzat, baina inor be ez zan kapoan lotu.

Ekimena Herriko Tabernako Maribi eta Txaroren eskutik joan zan, halandaze, ikusitako arrakastaren ondorioz, beste bat be egin behar dala esan zan.



2007KO GABON SASOIRAKO KULTURA EGITARUA

- URRIAK 27.** Goizeko 11:30etan: Ilustrazio Tailerra.(6 urtetik/12 urtera). Liburutegian.
- AZAROAK 10.** Goizeko 11:30etan: Poesia Tailerra.(6urtetik/12 urtera). Liburutegian.
- AZAROAK 17.** Goizeko 12:00etan Taket liburuaren aurkezpena, Udaletxe azpiko lokalean.
Hizlariak: Luis Baraiazarra, Xabier Amuriza eta Asier Legarreta.
Eguerdiko 13:00etan: Bertso-triki-poteoa: Xabier Amuriza eta Xabi Paiagaz.
Trikitilariak: Mikel Barandiaran eta Unai Butroi.
Eguerdiko 14:30etan: Herri bazkaria frontoian. Txartelak hartu aurretik, udaletxean eta herriko tabernan.
- ABENDUAK 14AN.** Arratsaldeko 19:30etan “herri arteko ipuin lehiaketako sari banaketa” Bekoabandene txokoan.
- ABENDUAK 15EAN.** Arratsaldeko 20:00etan: Antzerki ikuskizuna Doro Zobaranen eskutik. Arrapio ikuskizun mitologikoa, alboka, euskal hizkuntza eta Anbotori lotua. Gazte eta helduei zuzendua.
- ABENDUAK 22AN.** Goizeko 11:30etan. Kontu kontalaria. (Lau urtetik aurrera). Liburutegian.
- ABENDUAK 24AN.** Iluntzeko 19:00etan Olentzero dator Sollubetik.

ALKARRIZKETA

Hil honetan, azaroaren 17an, Olazatar Martín'ek 80 urte beteko dauz, gure herriaren eta hizkuntzearen alde hainbat behar egin dau, bere eritxiak aurrera eramateko beti prest egon da, eta hori dala eta hainbat gorabehera euki dauz, bai eleizako arduradunakaz, bai politikoakaz... baina horrek ez dau inoiz kokildu. Guk Erdu Press honetatik omenalditxoak egin gura izan deutsogu eta hemen dakartzuegu berari egindako alkarrizketatxoaren laburpena.

• *Gamizen jaio zinen, ezta?*

Bai, halan dinoe, neu ez naz akordetan baina... Uribarrin jaio nintzen eta han egon ginen gozamenean harik eta Montañe erosi zeudien arte. Baserria oso egoera txarrean zegoen, gure aittek behar asko egin eban, sasio ta kendu, soloak ipini, mahatsa, txakolina egiten gendun... Ni gazteena nintzen, zaharrena arreba bat (hil egin zan) eta gero 4 anaia ginen, bat 12 urte eukozala hil egin zan istripuan, nik orduan 10 urte neukazan.

• *Zu 11 urtegaz joan zinen abade ezta?*

Bai, 11 urtegaz Fruizko habaneruen kotxean joan ginen Bergarara, Fruizko eta Gamizeko abadeak, Lezamizeko Jose Antonio eta Sebastian Juliantxunekoa txofer. Bergara leku hotza zan, mendien artean... eta handik hirugarren urterako joan ginen Gasteizera, seminaria.

• *Zenbat urtegaz egin zinen abade?*

23 urtegaz, eta lehenengo Ubidean egon nintzen 3 urte, Ubideako parrokoari Fruizera joateko agindua emon eutsien eta harek ez eban gura Fruizera joan eta aldatu egin genduan, Fruizen 11 urte egon nintzen.

Hemendik aurrera bizitza gogorra euki neban. Derioko seminarioan emoten nebazan klaseak, gero Mungiara etorri nintzen, bost urte egon nintzen San Pedro ikastetxeko ardurea hartu neban eta 25 ikasletik 200 ikaslara pasatu ginen urte batean.

Hemendik aurrera urte gogorrak bizi zituen (luze konta deuskuz baina laburpentxo bat egingo dogu) apezpikuagaz arazoak, zigorrak, epaiketak,... 11 urte egin zituen Zeanurin eta hainbat lan egin eban bertako ikastetxean, gero

Bermeora joan zen eta azkenik berriro Mungiara 1986an eta hemen jubilatatu da.

Garai hartan zortzi abadek talde bat osatu eban eta ekintza gogorrak antolatu zituzten, obispaduen enzerronak, Parisera eta Aita Santuagana be joan zen euren dokumentua ezagutzera emoteko Euskara gehiago egitea eleizetan eskatzen eban, zelako eleiza gura eban Euskal Herrian...

• *Euskereren iguruan be hainbat behar egin dozu?*

Bai, baina...ofizialtasunaren kontra goazenez ez dakit ba ikusten dan...

Behin, Karmelo Etxenagusia, gotzain laguntzaileak



esan eustan “Zu Martin: “eres victima de tus convicciones” eta halantxe da, ni hasieratik egon naz euskara batuaren kontra eta H letraren kontra.

Euskarak ez dau H-rik behar nik ez dot idatziko H-rik.

Eta euskara batua bai, baina zelan? Lehenengo etxe-ko euskerea da, gaur egun eskolan batua irakasten da eta hori ez da egiten etxean, orduan hor datoz gero arazoak...horregaitik gure beharra ez da ikusten beti kontra gabiltza eta.

• *Noiz sortu zen Euskarazaintza eta zergatik?*

Batua sortu zan 1968an eta handik 10 urtera batzarra egin zan Arantzazun eta gu han egon ginen. Bertan asko eztabaidatu gendun eta gure puntuak ez zirenez onartu ba erabaki gendun Euskaltzaindiari kasurik ez egitea eta geure akademia sortzea eta holan sortu zan Euskarazaintza, aldizkaria ateraten dogu, eta hilean behin batzarrak egiten doguz, horretaz aparte ZER aldizkaria be ateraten dogu, egutegia, euskal astea antolatzen dogu...

• *Badaukazuz be hainbat liburu, Gamizko eta Fruizko historia, zeure biografia eta hainbat ikerketa lan: abizenen jatorria,...*

Bai, eta batzuk oso interesgarriak dira, adibidez, abizenen jatorriena, euskeraz abizen guztiek daukie esanahiren bat, Goikoetxea (goien dagoen etxea), eta erdarazko abizenak ez da hori gertatzen Fonetika arloan be tesia egin neban Mungialdeko, Bermeoko eta Ondarroako euskerea, eta gauza bitxia gertatzen da, herri batetik bestera batzuk “alabea” esango dabe beste batzuk “alabie”, “alabi” ...

• *Eta zelan ikusten dozu gaur egun euskerearen egoerea?*

Euskerea aurrera doa irakaskuntzan, baina hizkuntza baten bititza luzatzeko herrien, etxean, egin behar da eta hori gero eta gutxiago ikusten dot. Hobeto ikusten dot goi-mailan, irakaskuntzan eta, baina txarto herri mailan, eta indarra horrek dauko, herrien egiten ez bada

• *Eta orain atzera begiratu zein da zure bizitzako unerik goxoena edo pozgarriena?*

Ba nik esango neuke Mungiara bigarrenez etorri nintzenean lan talde oso ona osotu genduala eta 12 urte horretan bete zirela neure asmoak eta ametsak, batera egiten gendun lan eta behar asko egin gendun oso urte zoriontsuak izan ziren niretzat, eta gero azken urte hauetan Fruizko parrokian be oso pozik nago, jendeak asko lagunduten deust, behar asko egiten da eta oso pozik nago herrien.

• *Egunkari baten irakurri dot Gunter Grass idazleak dioen esaldi bat “80 años no son nada, mi idea es seguir fastidiando un tiempo” ados zaude beragaz?*

Ja, ja... bai, beno fastidietan.. ahal dodan neurrien beste batzuri lagunduteko prest nagoni, oin, neure ideiak argi daukadaz eta bizi naizen artean defendiduko dodaz.


MARTIN, ZORIONIK BEROENA ETA URTE ASKOTARAKO!!!!!!!



elebila
EUSKARAZKO BILATZAILEA



ELEBILA EUSKARAZKO BILATZAILEA



WWW.ELEBILA.EU

Behar bat egiteko datuak interneten topetan hasi eta... ene! euskerazko informazioa aurkitu beharrean, ingelesezko, frantsesezko, gaztelaniazko edota beste edozein hizkuntzako webguneen helbideak erakusten deuskuz bilatzaileak.

Eta hori zergaitik!? Ba, merkatuan dagozan bilatzaileek (www.google.es edota www.yahoo.es, berbarako) ez da bezalako ezagutzen euskerazko informazioa daukien webguneak eta ez dagozalako prestatuta euskerazko testuetan bilaketak egiteko. Horra hor arazoa.

Baina historiak berak behin eta berriro erakutsi deuskunez, euskera eta euskaldun jentea ez da, ez, atzean gelditzekoa, eta sortu da bai, badaukogu bai, euskerazko lehenengo bilatzailea; hona helbidea: www.elebila.eu.

Bilatzaile honegaz gainerako bilatzaileakaz egiten dan moduan, topatu gura dogun hitza bilatzailearen leihoan idatzi, eta “bilatu” botoian klik egin ezker, hor agertuko jakuz emaitzak, euskerazko edukiak daukiezan webguneetatik aterata.

www.elebila.eu bilatzaileak aukerea emoten deusku aurkitu gura dogun informazioa euskerazko webguneetan bilatzeko edota baita be beste hizkuntzetan dagozan atarietan; hau da, euskerazko informazioa topetako erraztasunak emoten deuskuz baina beste hizkuntzaren batean bilatu behar izan ezker, horretarako be aukerea emoten deusku.

Era berean, berba bat topetako orduan, berba horren forma estandarrak, aldaera dialektalak zein forma ez-estandarrak be bilatzeko aukerea be emoten deusku.

Ez dago aitzakiarik, interneten informazioa topatu gura dogunean badaukogu bai, nora jo, hartu gogoan: www.elebila.eu

Bilatzaile barri honeri esker, beharra erraztu egin jaku eta aurrerantzean euskerazko bilaketak “zuzenago eta arinago” egin ahal izango doguz.

Egin aproba eta ikusiko dozu!



Ane Legarretaetxebarria fruitarrak Arrietako ludotekan egiten dau behar. Umeakaz daukon esperientzian oinarrituta eta ludotekan beragaz egoten diran umeakaz berba egin ostean, jostailu kontuetan umeei zer gustaten jakeen azaldu deusku:

- 4 urtetik 7 urtera bitartean: “Playmobil” estiloko jolasak, kotxeak eta kotxeakaz jolasteko zirkuitoak, panpinak eta panpinakaz etortzen diran osagarriak, margotzeko eta pegatinak jartzeko liburuak, ordenagailurako jolasak, “Nintendo” erako bideojokoak, pailazoen pelikulak...
- 8 urtetik 11 urtera bitartean: Margotzeko panpin txikiak, futboleak egiteko pilota eta botak, “Nintendo” erako bideojokoak, “Playmobil” estilokoak, autoak eta zirkuitoak...
- 12 urtetik aurrera: “Play Station” estiloko jolasak, telefono mugikorra, musika entzuteko edota informazioa gordetzeko “mp3”, “mp4”, “ipod”...



Adituek dinoenez jolasa ikaskuntza baliabide bikaina da. Jolasteko ez da joko, jolastailu.. garesti edota sofistikatorik behar; olgetako, ondo pasetako gogoia euki ezker, ez da apenas beste ezer behar, nahikoa izan leiteke egur zati bat, harritxo bat...

Eta sarritan ahazten doguna eta ezinbesteko garrantzi daukona zera da: HIZKUNTZEA bera izan leitekeala nahikoa ondo baino hobeto pasatzeko, hor daukoguz esate baterako aho korapiloak, asmakizunak, ipuinak... Egizue aproba txiki eta handiak, eta ikusiko dozue, bai, memoria, komunikazioa, harremanak... garatuz aparte, ze ondo pasatuko dozuen eta zelango barreak egingo dozuezan:



AHO KORAPILOA: URREZKO HARRI BAKARRA, LAPURRAK HARRAPATU, ETA ARIN-ARIN URRUN EROAN

- 1.- Irakurri ozen 2-3 aldiz goiko aho korapiloa.
- 2.- Irakurri barik errepikatu. E!! Ze, zelan urten dau? Ia barrero ahalegindu!
- 3.- Orain irakurri aho korapiloa bokal bakarragaz. Eta orain... beste bokal batezagaz !!!
- 4.- Eta amaitzeko... asmakizun bat!




IPARRALDEAN HAMABI, HEGOALDEAN SEI EKIALDEAN HIRU MENDEBALDEAN BEDERATZI ETA DENAK ZERO ERRALDOIAN GATIBU. NOR NAZ NI?

(Xabier Olasoren Auskalo! liburutik hartutako aho korapilo eta asmakizunak)

Gabonak atea joka daukoguz, horretaz konturatzeko telebistako iragarkiak ikusterik besterik ez dago. Iragarki gehienak umeei zuzenduta dagoz eta helburua ba...saltzea eta saltzea, askotan jostailu horreek umeentzako egokiak diren edo ez kontuan hartu barik. Hona hemen Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak (EKA) gurasoei emoten deusien aholkuetariko batzuk (www.eka.org):

- Iragarkiak umeakaz batera ikusi eta edukia eurekaz komentatu.
- Umeek telebistan ikusi eta erostea eskatu daben jostailua dagoen denda batera joan eta seme-alabari erakutsi. Izan be, askotan telebistan erakusten dabena ez dator errealitateagaz bat.
- Azaldu aukera gehiago dagozala. Iragarritakoa ez dala produktu bakarra.
- Zentzuzko erosketak egin. Denbora hartu eta ez ibili azken orduan presaka erosten.
- Ez emon jostailu asko, ezin izango dauz-eta danak apreziatu eta baloratu...
- ...



FRUIZ



M^a Luisak Elgezabalek gu guztiokaz partekatu dauan argazki hau 1952-54 urte ingurukoa da; egin kontu! orain dala 55 bat urte aterako argazkia!! Argazkikoak sasoi haretan Fruizko eskolara eblezan neskatoak doguz, ia igartzen dozuen nor dan nor!!!

• *M^a Luisa, zenbat urtegaz hasten zan lehen eskolara?*
Hasi 6 –7 urtegaz hasten ginen, ni lehentxoago hasi nintzen 5 urtegaz baina hori arraroa zan.

• *Eta eskolea itxi?*
Itxi 14 urtegaz gutxi gora behera, batzuk lehentxoago itxiten ebien kriada joateko edo.

• *Ze ikasgai eukiten zenduezan?*
Liburu batez ibiltzen ginen, lehenengo bat txikitxoago eta gero enziklopediagaz harik eta amaitu artean, liburuan danatarik egoten zan, “gramatica”, “historia de España”, “aritmética”, “historia sagrada”... honek goizez egiten genduzan, eta gero arratsaldean “lectura”, “trabajos manuales”, mapak, diktadoak...

• *Goizez eta arratsaldez ibiltzen zineten? Edadeka egoten zineten, danak nahastean?*
Bai, klaseak goizez eta arratsaldez eukiten genduzan, goizean lehenengo orduan etxeko lanak zuzendu, hau beti egiten eban irakasleak, eta 12:00etarako amaitu barik bazeuden 13:00ak arte be geldituten ginen. “Lecturea” egiteko beran mahaiaren inguruan jartzen ginen eta banan-banan joaten ginen irakurtzen.

Klasean taldeka egoten ginen, baina danok batera,

nagusienak atzetik jezarten ziren aurrean gaztetxoagoak eta holan, aurre-aurrean bere mahaiaren alboan txikitxoena ipintzen ziren, gu gelan 44 neska edo egon ginen, beste aldean 33 mutil.

Gero goiz erdien errekreio orduan basu bat esne emoten euskuen, badakizu gerra ostea zan eta... arratsaldean etxerako beti gaztai zatitxo bat, mantekilea... taloagaz edo etxean jateko ze ogirik be ez zan egoten eta.

• *Zelangoak ziren orduko maisu-maistrak ?*
Gurea Doña Maria Rementeria izan zan, arteza, asko ikasi gendun beragaz, zenbat behar egiten zeuen !!!, egunero egunero bialtzen euskuzan etxeko lanak eta hurrengo egunean danak zuzentzen genduzan, mutilena uste dot gurean aldean oso gogorra izan zala.

• *Zelan konpontzen zineten erdereagaz? Euskeraz egiteagatik zigortu egiten eben?*
Guk suertea euki gendun ze gure maistriak euskeraz bazekien, halanda guztiz be esaten euskun ez egiteko euskeraz ze inspektorea edo etorri ezkerroan... Klasean dana erderaz egiten euskun, baina txikitxoeri hasikeran ba... erderarik ulertu ez eta egiten eutsien euskeraz.

ESKERRIK ASKO M^a LUISA!!!!

ARGAZKIKOAK: Juanita (mandaluizkoa); Luisita (andekokoa); Marivi (etxebarrikoa); M^a Carmen (latzabarrikoa); Maribel (paskualanekoa); Ines (puntebarrikoa); M^a Pili (esperantzakoa); M^a Luz (elizaldekoa); Miren (latzabarrikoa); Conchi (maisuenekoa); Milagros (sañurdikoa); Maritxu (andekokoa); M^a Angeles (biortzakoa); M^a Luisa (etxetxikerrekoa); Genomari (errementarienekoa); Begoña (mandaluizkoa); Eli (uruenekoa); Marta (olagartakoa); M^a Tere (etxebarrikoa); Pacita (txabolakoa); Osane (batizkoa) Mertxe (maisuenekoa); M^a Asun (sañurdikoa); M^a Luisa (goikotabernakoa); Cristina (eurkitzekoa); M^a Jesus (julientxunekoa); Ana Mari (etxetxikerrekoa); Arantxa (elizaldekoa);; Pilar (plakonekoa); Conchi - Maite (andekokoak); Miren Argi (palaziokoa); Ester (sallebantekoa); M^a Jesus (konfiturenekoa); Miren (mandaluizkoa); M^a Carmen (maisuenekoa).

UMEEN TXOKOA

“Udabarria, uda, udagoiena eta negua”

- Urteko lau sasoietatik zein dozu zuk gustukoena?
- Ze sentsazinogaz, ze koloregaz, ze usainegaz, ze ideiegaz, ze berbagaz... definituko zeunke sasoi bakoitza?

- Udabarria:

- Uda:

- Udagoiena:

- Negua:



ANE ANDIKOETXEA MAKUA
(MEÑAKA), 9 URTE

- 1.- Uda, ze urtetan gara jolastera gehiago, frontoira eta kalera.
- 2.- Udabarria: Lotzen dot gorria koloreagaz, larraren usainagaz, lorakaz lepoko bat egitearen ideiegaz.
Uda: Lotzen dot berdea eta horia koloreakaz. Beroaren sentsazinoagaz. Itsasoaren usainagaz. Hondartzara joateko ideiegaz.
Udagoiena: Hostoak jausten diran sentsazinoagaz. Marroia, gorria eta horia koloreakaz. Hosto sikuen usainagaz. Hosto sikuak batzeko ideiegaz.
Negua: Hotzaren sentsazinoagaz.
Zuria eta marroia koloreakaz. Izotz usainagaz eta edurra hartzearen ideiegaz.



JANIRE URZELAGA (FRUIZ), 8 URTE

- 1.- Negua.
- 2.- Udabarria: Landareak hazten dira eta euri asko egiten dau.
Uda: Bero asko eta eguzkia.
Udagoiena: Hosto horiak dagoz eta euri asko egiten dau.
Negua: Hotz asko egiten dau eta batzuetan edurra.



JULENE RANERO GANBOA
(GAMIZ-FIKA), 6 URTE

- 1.- Uda. Oporretan gagoz. Denpora ona egiten dau.
- 2.- Udabarria: Lorak dagoz, hostoak hazten dira. Horia.
Uda: Beroa. Pizsinera joan. Hondartza. Berdea.
Udagoiena: Hostoak jausten dira. Euritakoa. Marroia.
Negua: Edurra. Hotza. Olentzero. Zuria.



ALEXANDER DIEZ ROBERTSON
(ARRIETA), 6 URTE

- 1.- Uda, eguraldi ona dagoelako eta oporretan gagozalako; baina negua be bai, neguan edurra dago, trineoan jaisten gara, edur-bolak bota...
- 2.- Udabarria: Loreak, frutak, kolore ezberdinak...
Uda: Oporrak, parkea, pizsinak, ibilaldiak, izozkiak...
Udagoiena: Hostoak erortzen dira, Hallowé'en gaua...
Negua: Edurra, hotza, Olentzero, opariak...

DENPORA-PASAK

SASOIAN SASOIKOA JAN

- Uda •
- Udabarria •
- Udagoiena •
- Negua •

- patatea
- madaria
- mallukiak
- intxaurrak
- masustak
- azea
- kipulea
- mahatsa
- urrak
- mizpirak
- kereizak
- idarrak
- tomatea
- piperrak
- berakatza
- porruak

“Saritzat GABONETAN
KEREIZAK!!!
esakereak ze esan gura dau?
Galdetu etxean, auzoan, eskolan...”



ESAERA ZAHARRAK

- Urdaia, gaztaia eta ardoa urtekoa, adiskidea urteetako.
- Urte askoan gura badozu bizi, oiloakaz ohera eta txoriekaz jagi.
- Mila urte ez dira behar mila gauza ikusteko.
- Mila urte igarota ura bere bidean.

Gotzon Garate, *Esaera zaharrak*.

TXISTEAK**Konfidentziala**

Jaimek behargin barria hartu dau zapatu goizetarako dendarako. Egin beharreko guztiak azaldu ostean, zera dinotso:

- Eta mesedez, ez esan inori ze kobratuko dozun, “konfidentziala” da eta.
- Lasai, nagusi. Ez deusat inori esango. Dana dala gauza bat esan behar deusut: ez eizu “konfidentziala” esan “lotsagarria” esan behar dan lekuan.

(www. argia. com)

**ZENBAKI HONETAN
PARTE HARTU DABE:**


**OLATZ AXPE
ZURIÑE GOTI
ASIER LEGARRETA
NEREA MALLONA
ELIXABETE URIARTE**

**ARGI EGITEKO**

- Akordetan zara argi egiteko ze ibilten zan?
- Linternea, petrolioia eta karburoa, farola eta horreixek danak.
- Linternea eukiten zenduen orduan?
- Bai linternea bai, baya gitxi, gitxi. Linternea gitxi, karburoa en general eta farola asko.
- Eta kandile edo?
- Kandile be bai.
- Eta zertarako ibilten zan kandile? Non argi egiteko, etxe guztien edo?
- Ez, ez, ez, esate baterako, kandilegaz ba, sutean edo holan ba, esate baterako, kandile ba... beste, karburoa edo faltan badau kandile oriotxuegaz ipinita farolan edo, sutean.
- Kortara ze argi eroaten zenduen?
- Farola.



(Sorkunde Azketaren
Fikeko berbakera
liburutik.)



**ARRIETA • FRUIZ
GAMIZ-FIKA • MEÑAKA**

**EUSKARA ZERBITZUA
ZURE ESKU**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
HIZKUNTZ POLITIKARAKO SAILORDETZA



**Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia**
Kultura Saila
Departamento de Cultura